



## Datorren astebururako utzi du igoera Tolosa futbol taldeak

**0-0** ▶ Nahiz eta gol aukera asko izan, golik gabe amaitu zuen atzo Anaitasunaren aurkako partidua

**EHU** ▶ EHUK irabazi egin zuen eta Tolosak bere aurka berdinketa beharko du 3. mailara igotzeko ▶ 4



Berazubi jendez eta giroz bete zen, baina tolosarrek ez zuten irabaztea lortu, nahiz eta gol aukera asko izan. NOELIA LATABURU

**TOLOSA** ▶

**Egoitza berrien egoera aztertu dute**

Gerontologikoa itxi ondoren nola dauden azaldu dute ▶ 5

**TOLOSA** ▶

**Musikaria hasi da herriko tresnekin**

Gaur, haize boskotea ariko da ▶ 6

**ANOETA** ▶

**Jaietako lehen ekitaldietan jende asko** ▶ 7

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **MAITE Estetikako Zentru Integralean BALLANCER presoterapiarako 3 saio** zozketatuko ditugu



UZTURRETIK ▶  
KRISTINA URRUTIA

## Bozketak eta aukeraketak

**T**xikitatik ikasi eta egin dugun zerbat da. Baten edo bestearen aldeko apustua egitea, alegia. Ikastola garaian esaterako han ibiltzen ginen taldeak eginez edozein joku zela ere, «nik Amaia aukeratzan dut» eta besteak («nik zu» esanez. Gerora ere horrelaxe segi dugu aukera batzuei baiezkua emanez eta besteie ezekoa.

Eta orain ere berdina egitea eskatzen digute. Aste ederra joan da ba hau ere! Inguru guztia botu zenbaketa bati begira egon da eta. Baina azkenean irabazlearen izena jakin gabe amaitu da astea. Datorren astelehen arte zain egon beharko emaitzak jakin nahi dituenak.

Leitzan berriz, emaitzak jakinda bukatuko dugu astea. Guk nafarrok, Eusko Legebiltzarrean parte hartzerik ez dugunok, beste bozketak batean emanen baitugu iritzia: harrobiaren inguruan. Leitzako 2.577 herritarrok Albiñoko harrobiari bai ala ez esanen baitiogu gaurko bozketan. Baina ez gaitu horrek beldurtzen, edo ez gintuzke beldurtu behar ezta? Txikitatik hain barneratuta dugun gaitasunak lagundu beharko liguke behintzat aukeraketa egokia eginen? Ez da hain erraza ordea. Esaiezu bestela Gasteizko legebiltzarkideei!

Uneotan ordea, Gasteiz urruti xamar geratzen zaigu, bai behintzat Albiñorekin alderatuta eta halakoen urrutiko gertakizunak beti beste prisma batetik ikusten dira. Etxekoak ordea buruhauste handia dakar. Nori eginen dio mesede eta nori kalte nik hartuko dudan erabakiak?

Alde bakoitzaren interesak gailentzen direnean komeni dena bakarrik erakusten digute, beti bezala. Gure lana da ordea, prisma horien aurrean jarri eta etorkizunean paraje berdea ala zulatutako gunea ikusiko dugun begiratzea.

IRITZIA ▶ ANE LEGARRA ETA OIHANA LOPETEGI (TOLOSALDEKO EMAKUMEON MUNDU MARTXARAKO PLATAFORMAREN IZENEAN)

## 2005 arrazoi martxan jarraitzeko

**G**aur, Euskal Herriko emakumeok hamaika arrazoi dauzkagu mobilizatzeko: pobrezia, biolentzia, prekaritatea, ikusezintasuna, diskriminazioak... hamaika arrazoi bat egiteko. 2000. urtean hasi genuen martxarekin jarraitzeko arrazoi nahikoa dugu Euskal Herrian edo munduko edozein lekutan kapitalismo neoliberal eta zapalkuntza patriarkalpean bizi garen emakume guztiok.

Guk, Euskal Herriko errealitatea kontutan hartuta gure etorkizun kolektiboa demokratikoki eta injerentziarik gabe erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu; joko arauak adostu eta oinarritzko balioak konpartituz gero jendarte anitz eta aberasgarria sortu dezakegu denon artean, aniztasuna baita gure identitatearen ezaugarria. Elkarrizketa eta ikuspuntu irekien bidez gaindi daitezke desberdintasunak, eta hori euskal jendarteari egin diezaiogezun ekarpen garrantzitsua da.

2000. urtean mundu osoko emakumeok gure aldarrikapen feministak kontutan izan eta bestelako mundua eraikitzea posible zela aldarrikatu genuen. Aurten, berriz mobilizazioetan hasi eta egindako

aldarrikapenetatik proposamen zehatzetara egin dugu salto.

2005eko Emakumeen Martxarako Euskal Herriko Plataforma humanitararako emakumeen mundu karta osatzeko aritu da lanean; mundu osoko emakumeon eskubideak aldarrikatzen dituen gutun hau herrialdez herrialde dabil egunotan, Brasilen Martxoaren 8an hasi eta gaur Galizian dugun martxaren testigu dugu gutuna. Euskal Herriera asteartean iritsiko zaigu Emakumeen Mundu Martxa, Karrantzatik herrialdez herrialde Baionaraino iritsiko da, eta larunbatean Frantziari emango diogu aldarrikapen feministez osatutako gure testigua Marsellan.

Euskal Herriko emakumeok ordea urrats bat gehiago emateko asmoa dugu geure borroka feministan. Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Gutun bat egitea da orain aurrean dugun eronka. Eta zergatik behar dugu geure gutun propioa dagoeneko emakumeon eskubideak batzen dituen mundu karta bat badaukagu? Emakumeon aldarrikapenak (pertsona guztienak bezala) desberdinak direlako munduko txoko bakoitzean. Senegaleko emakume batek edo euskal-

dun batek esateko duguna oso desberdina baita, eta euskaldunok asko dugu esan, egin eta emateko. Karta, ekintza eta eztabaidarako tresna bihurtuko dugu, geure egoeraren jabe egin eta jendartean inplikatu beharra daukagu. Horretarako emakumeen batzarrak egiteko asmoa dugu, herri bakoitzean, eskualde bakoitzean... emakumeok elkartu eta geure eskubideak jasoko dituen gutuna egiten hasiko gara, ondoren konprometuz zehatzak exigitzeko balioko digun karta egingo dugu emakumeok.

Batzuei hasiera batean Emakumeon Mundu Martxa sinbolikoa dela irudituko zaizue, ez dela lanerako tresna bat. Guretzat ordea Mundu Martxa ez da helburu bat, geure helburuak lortzeko tresna bat baizik, emakumeok elkartu, hitz egin, eztabaidatu eta aliantza bat sortzeko balioko digu martxak, geure egoeraren inguruan hausnartu eta borroka bide berriei ekinez.

Hau guztiagatik, eskualdeko emakume guztiak deia luzatu nahi dizuegu Mundu Martxa Euskal Herriatik pasatzean ekitaldietan eta ondoren Tolosaldean egingo diren emakume batzarretan parte har dezazuen.

ENRIQUE SEGUROLA ▶ ORGANO JOLEA

## «Ez dut huts egin urte guzti hauetan: igandero mezetan aritu naiz organoa jotzen»

Musika izan du afiziorik handiena Enrique Segurola asteasuarrak; Tolosaldeko hainbat elizetan aritu da organoa jotzen hainbat urtetan eta egun ere jarraitzen du

IMANOL GARCIA

81 urte egingo ditu aurten baina berdin jarraitzen du organoa jotzen Enrique Segurolak. Musikari dioen afizioak bultzatu dio asteasuari honi herrian eta eskualdeko beste hainbat elizetan organoa jotzera 50 urte baino gehiagotan. Herrian omenaldia jasoko du laster.

**Nola hasi zinen musikaren munduan murgiltzen?**

Herrian bazegoen organo jole bat, Arrue izenekoa, eta sei urterekin hasi nintzen berarekin solfeo ikasten. Gero, hamaika bat urterekin Tolosara joan nintzen ikastera, Frantzesetara. Han ikasten ari nintzela, niri pianoa gustatzen zitzaidan eta Eduardo Mokoroarekin, or-

duan Santa Mariako organista zenarekin hasi nintzen ikasten. Gero han nenbilela, aita hil zitzaidan eta guk denda eta taberna geneuzkan eta etxera etorri behar izan nuen hamasei urtererekin.

**Egunero joaten zinen Tolosara?**

Ez, nik han arrebak neukan ez-kondu eta bertan egoten nintzen. Baina ia egunero etortzen nintzen etxera. Bizikletan egiten nuen bidea. Lan asko baldin bazen etxean, hemen hiletako bazkariak eta ematen baikenituen, etortzen nintzen. Arrebak eta bazeuden lanean, baina beti laguntza behar izaten zen.

**Pianoaz aparte ez zenuen beste afiziorik?**

Pianoa ikasten hasi nintzen garai horretan afizio ikaragarria nuen pilotan. Pianoa ikasten nahiko ondo ibiltzen nintzen eta Mokoroak esan zidan: «Beno, ez daukazu ibiltzerik pilotan eta gero pianoan. Bata edo bestea aukeratu behar duzu». Eta pilota ez nuen utzi, baina gutxiago aritzen nintzen. Gero pianoa erosi nuen. 900 pezeta ordaindu nituen, ondo gogoratzen naiz. Eta etxera ekarri nuen eta Tolosan aritzen ez nintzenez etxean bertan jotzen nuen. Afizio gogorra izan dut pianoarekin.

**Diru dezente izango zen hori, ezta?**

13 bat urte nituen eta 900 pezeta diru asko zen garai hartarako. Gogoratzen naiz ere nola

ordaindu nuen. Orduan estankoa genuen eta gerra ondorengoa zen. Eta soberan geratzen ziren 40 pakete edo hartu eta saltzen nituen.

**Nola hasi zinen elizetan organoa jotzen?**

Asteasun hogeitik gora urte nituela hasi nintzen jotzen. Albiñoko Iraola izenekoa bat zegoen organo jole. Bera harakina zen eta lana ikaragarri egiten zuen. Eta askotan ez zeukan etortzerik eta hemengo erretore zen don Hipolito Usabiagak esaten zidan: «Enrique, jo ezak hik ere, hura ez dek etortzen eta». Eta horrela, pixkanaka hasi nintzen organoa jotzen.

**Eta gaur egun ere aritzen zara?**

Bai, igandero. Ez dut iganderik huts egin urte guzti hauetan. Garriolari bezala lan egiten nuenean ere, igandero etortzen nintzen etxera. Gaur egun Asteasun 11:45ean bukatzen dut eta kotxea hartu eta Villabonako Elbarrenara ere joaten naiz, Arantzazuko Ama Birjinaren elizara. Han meza 12:30ean hasten da. Nire bizimodua horrela izan da, igandero organoa jotzen elizetan. Emazteak errieta egin dit askotan [irrirre egiten dut], nonbaitera bazkaltzera joan nahi baina...

**Mezetan aldaketarik izango zen urte hauen ondoren?**

Gaur egun meza denak berdi-



**MAIXABEL LASA**  
J.M. JAUREGIREN ALARGUNA

«Bakerako bideak bilatzen aurreratzeko apustuan nire laguntza dauka gobernu presidentek»



**INGRID BUCHWALD**  
ARTISTA BERRIETAN SARITUA

«Arte galerietara iristea oso zaila da eta sari honek gazteoi lagundu egingo digu»

## GUTUN@K ▶

### Hauteskunde autonomikoen balorazioa marxismoaren ikuspuntutik

2005eko apirilaren 17ko Hauteskunde Autonomikoen emaitzak lurrikara politiko bilakatu dira. Ezker abertzaleak ilegalizaturik jarraitzen badu ere, bere botuak legebiltzarrerara bideratzeko modua aurkitu du EHAKren laguntzarekin. Ezkerreko oinarri sozialeko hautagaitzak izan dira aurrerapauso nabarmena eman dutenak, EHAK, PSE-EE, EB-IU eta Aralarrek 40.353 boz gehiago lortuz 2001eko hauteskundekin alderatuta. Bestalde, eskuin euskaldunak eta espainolistak, PNV-EA eta PPK, 268.487 botuko atzerakada jasan dute eta 9 legebiltzarkideren galera. Gainera, ez da ahaztu behar errodan 50.000 botoemaile gutxiago zeudela eta abstentzioa %10 batean hazi dela.

2001eko hauteskundean Aznarren Gobernuaren politika

errepresibo eta euskaldun ororen kriminalizazioak abantailak besterik ez zizkion ekarri PNV-EA koalizioari. Nicolas Redondo buru zuen PSOEek PPri segidismoa egin izana ordaindu behar izan zuen. Aldiz, aurten PSOEek 5 eserleku gehiago lortu ditu eta EHAKk berriz 9.

Madrilgo Parlamentuan Ibarretxe Plana onartu ez zen egunaren ostean egin zuen PNV-EAK hauteskundeen deialdia, ezker abertzalearen botoak lortzeko asmoarekin. EHAKk hauteskundean legalki parte hartu izanak euskal burgesiaren estrategia hautsi du ordea, eta gainera gehiengo absolututik urrunago dago, hau lortzeko PSOE (19 eserleku) edota EHAK (9 eserleku) behar duelarik. Eskuinaren boto galera honetan ere izan du eraginik Jaurilaritzak langile klaseari, osasungintzari eta hezkuntza publikoari egin dizkion erasoak.

EHAK alderdia izan da zinez hauteskunde autonomiko haueko protagonista. Alderdi honek Batasunaren aurreko emaitzak gainditu ditu. Ezker abertzalearen militantzia aktibo

guztiak hartu du parte EHAKren kanpaina honetan, bere presentzia hiri, herri eta komunikabide guztietara zabalduz. Ezker abertzaleari PNV-EAren gaitz hurbiltzea barkatu ez zion sektoreak ere honen aldeko botua eman du. Botu gorrien uholde honek aurretik eraman ditu eskuin euskaldun eta espainolistaren planak eta ikasgai izan dira burgesia ertainaren mesederako ari diren Euskadiko Partidu Komunistako (EPK-PCE) eta IU-EBko buruzagientzat.

PNV-EA-EB hirukoaren gobernu bat errepikatzeak Aralarrekin bat bada ere, ez du gobernu ahul bat besterik emango eta PSOE nahiz EHAKrekin akordio puntaletara behartua egongo litzateke. Azken bi hauek baten elkarrekin elkartzeak ordea krisia sortuko luke eskuin euskaldunaren errailetan. Argi dago PSO-Erekin gobernu bat ez litzatekeela sortuko lehen unean, baina laguntza puntualekin gobernatuko lukete baldintza egokiak sortu arte. EHAKrekin elkartzekotan berriz, PNV tinko agertu beharko litzateke autodeterminazio eskubidearen defentsan.

Ezin daitezke alde batera utzi negoziazioaldi luze baten edota hauteskunde aurreratuen aukerak.

Ezgonkortasun garai batean aurkitzen gara. Ezker abertzaleak Irlandako bake negoziazioen antzeko bat ireki nahi badu ere argi geratu da honen eraginkortasun eza. Euskal Herrian duugun arazoa kapitalismoaren burruan autodeterminazio eskubidea lor daitekeela pentsatzen dago. Beraien artean dituzten merkatu harremanengatik ez burgesia espainiarri ez euskaldunari ez zaio interesatzen independentzia lortzea. Sozialismoaren aldeko borroka esku-bide nazionalen aldeko borroka ere bada eta gure ustez funtsezkoa da langile klasea garaipenera eramango lukeen zuzendartza marxista eta iraultzaile bat sortzea. Kapitalismoarekin hautsiko duen iraultza batekin soilik amaituko dira burgesiak konpondu ezin dituen arazoak, eta hau izango da langile klasearen arazoekin eta arazo nazionalarekin amaitzeko bide bakarra.

IBON ARTOLA ETA

MANU ODRIOLAZA ▶ ANOETA



IMANOL GARCIA

## PERTSONALA ▶

▶ Bizileku duen Asteasuko Elizmendi auzoko Goiko Ostatuan bertan jaioa ▶ 1924eko uztailaren 14an ▶ Eduardo Mokoroarekin ikasi zuen pianoa ▶ 50 urte baino gehiago darama organoa jotzen eskualdeko hainbat elizetan ▶

**Musika pieza gustukoena?** Schubert-en sonata oso ederra da eta *Ave Maria* ezberdinak ere asko gustatzen zaizkit. **Organo batenzat kalterik handiena?** Inork ez jotzea.

## AFIZIOAK

«Pilotan edo pianoan ezin nintzela aritu eta bat aukeratzeko esan zidan maisu izan nuen Eduardo Mokoroak»



nak izaten dira. Hiletara jende asko etortzen da, baina meza nagusira joaten dena gutxitu da, jaisten ari da.

**Eta abesten duten artean aldaketarik?**

Hemen herriak oso ondo abestu izan du eta abesten du. Laguntza handia izaten da. Lehen koruak bakarrik abesten zuen, orain jende guztiak abesten du.

**Pentsatu zenuen musikatik ofizioa egitea?**

Ez. Txofer hasi nintzen eta gero kamioi bat erosi nuen. Astean hiru bidai egiten genituen Barzelona eta Madrilera. Gero enpresa bat sortu eta egun seme-

alabek jarraitzen dute enpresarekin.

**Izan duzu aukerarik garraio-lari lana eta musika uzartzeko?**

Urteaga izeneko piano jole on batekin kontratatu zidan nire kamioian organoa eramateko. Instrumentua saltzen ari zen eta kontzertuak ematen zituen leku ezberdientan. Salamancan, Andaluzian... izan ginen. Salamancako kontzertua izan zen aurrena. Ni orduan gaztea nintzen eta asko harritu nintzen kontzertua amaitzean txaloak entzutean. Lehenengo aldia zen eliza baten burruan txaloak entzuten nituela.

## PILOTA ▶

## Erraz irabazi du Aimar Olaizolak Gonzalezen aurka Beotibarren

Goizuetarrak 22-6 irabazi zion merezimendu osoz; azkaindarra oso urduri aritu zen

JOXEMI SAIZAR

Aimar Olaizola goizuetarrak erraz eta merezimendu osoz irabazi zion atzo Beotibar pilotalekuan jokaturako Eskuz Binauko finalerdia Sebastien Gonzalez azkaindarrari. Partidu osoan ondo aritu zen, Iparraldeko pilotaria aldiz, oso urduri aritu zen.

Partiduaren hasieratik dominatzen hasi zen goizuetarra. Lehen bost tantuak jarraian egin zituen. 10-5era inguratu zen gehien Gonzalez, baina handik aurrera tantu bakarra egin zuen. 40 minututan eta 154 pilotakadarekin amaitu zuen partidua.

Faborittoa zen Olaizola eta arduririk mila eta berrehun jo-



Gonzalez —ezkerrean— eta Olaizola partidaren hasieran. J.SAIZAR

katzen hasi ziren, baina lehen tantoak ikusita, segituan jaitsi zituzten zenbakiak eta berehala isildu ziren. Panpi Ladutxe botileroak ere onartu zuen bere mutilak ez zuela «deus

ere demostratu». Irabazlea berri, «pozik» agertu zen «fisiko ki eta buruz» ondo aritu zelako.

Gaur jokaturako da Donostian txapelketako bigarren finalerdia, Juan Martinez de Iru-

jo eta Patxi Ruizen artean. Irabazleak Aimar Olaizolaren kontra jokaturako du finala, oraindik zehaztu ez den egunean. Olaizolaren bigarren finala izango, duela bi urte jokatu eta galdu baitzuen Ruizen aurka.

## Zeberio garaile erremonten

Bestalde, ostiral gauean Txinparta elkartek bere 75. urtemugan Beotibarren bertan antolatutako erremonte jaialdian, Zeberio II.a elduindarrak errebantxa hartu zion Altuna I.a amezketarrari, 35-20 irabaziz. Lehen partiduan Zalakain tolosarra eta Agirrezabalak 30-25 irabazi zieten Aizpurua II.a eta Gazteluri. Beotibarren jokatzeko ziren lehen erremonte partidak izan ziren.

## FUTBOLA ▶

NOELIA LATABURU

Atzo Berazubín lortutako berdinketa ez zen nahikoa izan eta igoeraren ametsak beste bete itxaron beharko du urdinentzat. Izan ere EHU-UPVk garaipena lortu zuen Oriokoren aurka jokaturako neurketan, sailkapen nagusian bi puntuen aldea ezarri elkarren artean. Zirrara, beraz, ez zaio faltako ligako azken jardunaldiari, datorren asteburuan lehia zuzeneko norgehiagoka jokaturako baitute bi talde hauen artean.

Ez zuen norgehiagoka txarra jokatu Tolosak eta 90 minutuetan zehar mendean izan zuen Anaitasuna. Jokalariak indarra eta kementa erakutsi zuten, baina zoria aurka aritu zen atzokan. «Oso zorrie txarra izan dugu», adierazi zuten norgehiagoka amaieran. Tolosarrak hamaika aukera izan zuten eta bigarren zatian hiru bider atera behar izan zuen Anaitasuna taldeko atezainak baloia bere atepetik.

Lehen zatian erasoan aritu ziren uneoro eta bi aukera garbi izan zituzten bisitarien atea zulatzen. Jokalari bat gehiagoz aritu ziren, gainera, urdina lehen zatia amaieratik, Anaitasuna taldeko Gonzalez aurrelariak bi txartel hori ikusi baitzituen, bi sarrera gogorren ondorioz. Bigarren zatian, aldiz, urduriago atera ziren jokalariek. Orduan burutu zen etxeko lehen aldaketa eta Regillaga sartu zen Artolaren orde. Askotan gerturatu ziren aurkariaren ate ingurura, hegaleatik zein erditik. Bigarren zati honetan bost txartel hori ikusi zituzten Anaitasunakoek. Ekaitz, Gorka, Aierbe eta Blan-



Partida ona burutu arren ez zuen garaipena lortzerik izan talde urdinak atzo Berazubín. N. LATABURU

## Liga osoa jokoan azken jardunaldian

Tolosa berdindu eta EHU-UPV bi puntuetara dago; datorren astean elkarren aurka lehiatuko dira ligako titulua lortzeko

co ere atera ziren zelaira zati honetan. Azken 15 minutuetan aukerak bata bestearen atzetik ailegatu ziren. Baina ezina nagusitu zen urdinen artean.

Aurpegi goibelekin bueltatu ziren aldageletara; berdinketarekin Tolosak EHU-UPVrekin

zuen aldea murrizteko beldurra zegoen eta. Haatik, esperantza ere nabaria zen, une horretan EHU-UPV taldea hutsnari baitzen Orion. 10 minutu faltazirela, ordea, haien aldeko penaltia sartu zuten.

Bestalde, zaletuek ez zuten

Tolosak eginiko deialdiari hutsik egin eta Berazubiko harmailak bete zituzten. Danborrak, txaloak, oihaak... Guztiak ere gutxi ziren taldea 3. mailara bultzatzeko. Txaranga ere han izan zen festa alaitzen. «Inork ez zuen horrelako emaitzarik

## TOLOSA ▶ 0

## ANAITASUNA ▶ 0

**Tolosa.** Apeztebea; Lacalle (Gorka 71m.); Unai (Aierbe 80m.); Jon; Aimar; Artola (Regillaga 46m.); Orue; Prados (Blanco 80m.); Lasa; Romero; Elola (Ekaitz 62m.).  
**Anaitasuna.** Del Rio; Rocha; Elizalde; Aranbarri (Juaristi 85m.); Romero; Zabala (Sudupe 74m.); Mendizabal; Bastida; Gonzalez; Aristi (Egidazu 76m.); Mujika (Larrar 90m.).

**Txartel gorria.** Anaitasuna: Gonzalez (39 m.).

**Txartel horiak.** Tolosa: Lacalle (70 m.); Anaitasuna: Romero (40 m.), Mendizabal (42 m.), Aristi (76 m.), Del Rio (86 m.), Mujika (90 m.).

espero», aitortu zuten Tolosakoek eta «jokalariek ere oso triste daude» gaineratu zuten.

## Berdinketarekin, txapeldun

Datorren astean erabakiko da ligako lehen postua eta, beraz, 3. mailarako txartelaren jabea. Tolosak EHU-UPV taldeko zelaia bisitatuko du eta jarraitzaile guztien beharra izango du garaipena lortzeko. Berdinketa nahikoa du talde tolosarrak, baina «guk irabaztera atera behar dugu berdegunera, ez gara kikilduko», adierazi dute. Egoera zailagoa da orain taldearentzat, baina «gaurtik aurrera» norgehiagoka prestatzen hasiko direla jakinarazi dute izan ere «liga guztian zehar eginiko lanak bere emaitzak emango ditu».

GUTUN@K ▶

Eskubide zibil eta politikoen alde. 'Apartheid' ari ez

Jadanik bi urte igaro dira Udal Hauteskundeak egin zirenetik. Orduan, ezker abertzalea desagertereko estatuak diseinaturiko Ley de Partidos delakoaren ondorioz traba eta oztipo ugari aurre egin behar izan genion. Euskal Herritar askok bere bozka ezker abertzalearen inguruan

sorturiko herri plataformei eman zieten.

Tolosan, Udal Hauteskunde haietan 2.500 bozka eskuratu zituen Tolosa Bizirik-ek. Honen ondorioz, 5 zinegotzi zegozkion plataforma honi.

Baina demokraziatik urruti dagoen legea ez dutela gustuko esan, baina lege honetan babesen direnek, inolako lotsarik gabe beraien ez zegozkien bost aulkiak lapurtu zituzten.

Bi urte daramatzagu bost pertsona hauei beraien ez dena uzteko, hau da, dimititzeko eta herriak aukeraturiko zinegotzi be-

raien lana egiten uzteko esanaz... baina inolako lotsarik gabe bere horretan jarraitzen dute.

Euskal Herrian bizi dugun gatazka bezalaxe udal ez demokratiko hauetan ematen dena ere borondate politikorekin konpondu daitekela diogu:

Aipaturiko dimisioak gauzatzeko badira, LOREG legearen 182.2 artikulua aplikatuaz herriak aukeraturiko Tolosa Bizirik-eko bost zinegotzi beraien kargua itzultzea posible izango da.

Ordizian, Idiazabalen, Irurtzuen, Araitzen, Hernanin, Etxebarren, Arratsaten, Forun, Barañai-

nen, Lizartzan, Anoetan eta beste hamaika herritan, herriak aukeratu gabeko 81 zinegotzik dimititu badute, Tolosan zeren zai daude?

Honen aurrean *apartheid*-aren aurka dagoen eta herriaren nahia bete behar dela uste duen herritarrei bi deialdi egiten dizkiezuegu:

- Maiatzaren 25ean (asteazkena) 20:00etan Tolosako udaletxe aurrean egingo den kontzentrazioa.

- Eta maiatzaren 31n 19:00etan izango den udalbatzarrera.

ANAJE URKOLA ETA KARMELE IZAGIRRE (BATASUNA) ▶ TOLOSA

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

INGURUMENA ▶

Bihar hasiko dira aurtengo natur jardunaldiak

Ramon Ortiz Ramis CSIC-eko Bolkanologia departamentuko kide eta ikerketa irakasleak emango die hasiera *Natura asaldatu* izeneko jardunaldiari bihar 20:00etan Tolosako udaletxean emango duen *Naturaren indarrak. Fenomeno natural bat nola bihurzen den hondamendia* hitzaldiarekin. Aurkezle lanetan Felix Ares de Blas Miramon Zientziaren Kutxaguneko zuzendaria ariko da. Aste osoan zehar luzatuko da.

HEZKUNTZA ▶

Informazio bilera DBH 3. mailako gurasoentzat

DBH 4. mailako ibilbide desberdinei buruzko informazioa emango diete bihar 19:00etan Orixe Institutuko lehen zikloko liburutegian DBH 3. mailako gurasoei.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amarozko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitxaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egotza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

GERONTOLOGIKOA ▶

Joan diren egoitzen egoera azaldu dute egoiliar eta senideek

Zentroa itxi ondoren, aurkitu dituzten egoitzen kokapenak, aktibitateak, pertsonala, zerbitzuak... aztertu dituzte

JOXEMI SAIZAR

Tolosako Euskal Herria plazan itxi zuten Zentro Gerontologikoan egoiliar izandako edo egoiliar izandakoen senitateko batzuk itxieraren ondoren aurkitu diren egoeran azaldu zuten herenegun prentsaurrean, zentroan bertan. Ekitaldi honekin arazoak «aurpegi asko» dituela azpimarratu nahi izan zuten eta horietako bat, inplikatuena, azaldu nahi izan zuten. Egoitzetan eskaintzen den kalitatea izan zuten hipzide. «Itxi zuten zentroa ez dugu idealizatu nahi, ez eta beste zentroak desprestigiatu nahi, bakarrik argi utzi nahi dugu edozein egoitzak ez duela balio, denak ez direlako berdinak», azaldu zuten.

Ikutu zuten lehen puntua egoitzen kokapenarena izan zen. Herriguneean egotea eta aldarrikatzea ez izatea sekulako abantaila dela adierazi zuten. «Nire ama Irungo egoitza batean dago eta sekulako aldapa dago bertara joateko. Irungo beste hiru egoitzetan, Oiartzunen, Beasainen, Tsaran, Fraisoron eta Andoainen gauza bera gertatzen da. Aulki batean dagoenak ezin du bere kasa ibili. Batzuk ez dira inoiz handik atera. Herrira jaisteko senitatekoen laguntza behar dute», azaldu zuen Santik. «Lehen hemendik nire aulkian nire kasa atera eta egoitzaren ingu-



Gerontologikoko egoiliar ohi batzuk eta senitatekoak. J. SAIZAR

ruko tabernetara joateko inoren laguntzarik ez nuen behar. Iurreamendira joan nintzen eta orain San Cosme y San Damian nago eta horretarako aukerarik ez daukat. Norbaiten laguntza behar dut», azaldu zuen Jose Marik. Iurreamendi egoitzarako autobusz (ondo dago, baina ordutegien arazoa dago; lehen ez zegoen arazo hori, autobusa ez zuten behar herriguneean zeudelako), azaldu zuten plataformako kideek. «Urrezko kaiolak ari dira egiten, batzuk oso ondo daude, baina herritik oso urruti daude eta egoiliarrek ezin dute atera. Kalera atera nahi ez duena oso ondo dago, baina atera nahi duena...», esan zuen Milak.

Egoitza batzuen zerbitzu Gerontologikoan zutena bai-

no hobea dela ere seinatu zuten, adibidez Iurreamendin: janaria, medikuak...

Beste zentro batzuetan berriz pertsonalaren falta nabaritu dute pertsona batzuk: «Zentroak masifikatzeraz jotzen dute, egoiliar asko eta langile gutxiarekin, merkeago ateratzeko, baina gero hori arretaren kalitatean nabari da. Denengana iristeko denborarik ez dute. Kalitateari baino, etekin ekonomiko garrantzi handiagoa ematen diete. Pertsonak gara, ez paketeak», azaldu zuen Milak. Alde horretatik, zentro txikiak «arreta pertsonalizatua» dutela azpimarratu zuten. Iurreamendin komonean bakarrik utzi eta lurrera erori zen emakumearen kasua aipatu zuten: «Hogei egunetan ez bi-

ren konturatu aulkian lotuta zihoala». «Oinarrizko beharrak —garbiketa, elikadura— betetzen dituzte, baina beste guztiak ez. Giza tratuerako denborarik ere ez zaie gelditzen», zioen batek. Villabonako Santiago egoitzako kasua aipatu zuen Mari Josek: «Igande batean joan nintzen osaba bisitatzera eta sarreran bospasei emakume zeuden aulkian. Ura nahi zuten eta emateko inor ez zegoen, zeuden bi langileak lanpetuta zebiltzalako». Behar horiek senideek bete behar izaten dituztela erantsi zuen. Maria Doloresen ama bi aldiz erori da Ordiziako egoitzan eta «inor ez zen agertu langile gutxi dagoelako, beste batek lagundu behar izan zion altxatzen»

Honekin lotuta dihoia aktibitateen gaia. Gerontologikoan zituzten animatzaileak behin eta berrero aipatu zituzten eta horren falta somatzen dute. Villabonako zentroa oso ondo kokatuta dagoela onartu, «da aktibitatearik ez» dagoela aipatu zuten, «kastean behin bakarrik marrazketa». Iurreamendin ere antzera daudela esan zuen Antoniok: «Gustura margotuko nuke, lehen hemen egiten nuen bezala, baina ez dago aukerarik. Ariketa fisikoak nire kontura egiten ditub». Kontrako kasua aipatu zuen Santik: «Irungo mojek eta zaintzaileek alde horretatik lan ona egiten dute, egoiliarrek ez dira asperitzen, beti zerbait edo norbait badute ondoan: aktibitateak, kontutan, egunkaria irakurtzen diete, ondo orraztuta eta makillatuta, azkarakal eginda...». San Cosme y San Damian zentroan ere alde horretatik ondo zainduta daudela esan zuen Jose Marik.

Azkenik, Euskal Herria plazan tabernarekin eta zentro sozialarekin zuten «bizitza eta alaitasuna» beste inon ez dutela lortu azpimarratu zuten. «Utzikeria sentsazioa» izaten omen da beste zentro askotan.



TOLOSA ▶ MUSIKA

# Herri musikaren erakustaldia herriko txokoetan barrena

XI. Musikariak bere bideari ekin dio, aste osoko musika ekitaldiei sarrera emanez



Baiona eta Lutxanatik etorri ziren gaita edo dultzaina jotzera; txalapartari eta trikitilariak, berriz, Ibarra eta Anoetatik. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo ekin zion aurtengo XI. Musikariak bere bideari, herri musika tresnen topaketarekin.

Hasi ere, kaleak jai giro beroran jarriz egin zuten, gure herri musikako tresna propioak joz, bide batez hauspoak eta besoetako giharrak ere berotu zituzten jotzaileek: Lutxanako dultzaineroak eta Baionako gaiteroak, Ibarra txalapartariak, Anoetako trikitilariak eta Barakaldoko albokariak izan ziren protagonista eta herriko kaleetan barrena kalejira nahiz geldialditan egin zituzten kontzertu ttikiekin, eskutan zituzten tresnekin doinuen nahiz euren arteko bateragarritasunaren erakustaldia egin zuten.

Euskal Herriko herri desberdinetatik etorritako musika jotzaileek txandaka jo zituzten hainbat pieza, entzuleok tresna bakoitzaren ezaugarrien jabe egin zitezten. Baina, Iñaki Salvador, musika eskolako dultzaina irakaslea bera eta aurtengo topaketa honen antola-

tzaileetakoak HITZARI baieztatu zionez, «aurreko egunotan, parte-hartzaile guztiok elkarrekin pieza batzuk entseatu ditugu eta gaur lehendabiziko orduan ere horretan aritu gara», eta aurrez egindako lan horrek bere fruituak atzo agertu zituen, guztiak elkarrekin ere, hainbat doinu eskaini baitzituzten, guztien doinuak bateratuz. Alboka, panderoa, dultzaina edo gaita, trikitia, danborra eta txalaparta, banaka, nahiz elkarrekin, bakoitza bere ezaugarriekin, baina besteen osagarri ere bai.

Doinu artean, ezdarriari busitaldia eta sabelari goxaldia emateko betarik ere izan zuten. Eta eguerdian bazkaria Ibarra egin eta festarekin jarraitu zuten.

## XI. MUSIKARIA ▶

### BIHAR, ASTELEHENA

19:00. Haizearen orrazia haize boskotearen kontzertua, Musika Eskolan.



Barakaldoko albokariak mahi inguruan, jo ta su. JAIONE ASTIBIA

## IBARRA ▶ II. GARAGARDO FESTA



## Jendea plazaratu ahala, giroa sortuz barra-barra

J. ASTIBIA ▶ Iluntzerako jendea hurbilduz joan zen atzokoan ere herriko plazara, txupinazoak deituta. Umeen jolasak izan zituzten, eta gauean makildarien erakustaldia, bitxia ikuskizuna. Guztia, noski, 19 garagardo mota dastatzeko aukera eskura izanda. Neurria hartu behar! Gaur, azken eguna, aizkolari eta bertolarien arteko apustua izanen da, berezia hau ere. Baliatu!. J. A.

AZOKA ▶

## Perretxikoak eta barazki eskaintza zabala atzo

Barazkien prezioek behera egin dute nabarmen; jendeak bizitasuna eman du

PABLO ALBERDI

Atzo oso eskaintza zabala ikusi zen azokan. Ia mahai guztietan izan zen barazki eskaintza izugarria, eta prezioak horren araberako dihoazte beheraka. Baba eta ilarrarena, adibidez, 2 eta 6 eurotan zan zen atzo, joan den astean, 3,5 eta 8 eurotan zegoen bertean.

Aipatzekoa da ere, tomatearen eskaintza. Oso kalitate handia lortzen ari dira base-ritarrak, eta prezioak ere ez dira batere garestiak. Atzo, 3,5 euro egin zuen kiloko.

Perretxiko eskaintza joan den astekora ez zen iritsi, nahiz eta asko falta ez. 350 kilo ziza, ia 150 kilo onddo izan ziren eta 40 kilo sende-ruela, 20 eurotan.

Berdura plazako baratza-rako landareen postuetan bizitasun handia izan zen goiz osoan. Bartatzean landareak sartzeko garaia da eta postuetan ikusitakoak halaxe adierazten zuten. Apaingarri-tako landareen postuetan ere jendea bazebilen eta hemen ere, oso garai aiproposean gaude. Atzo berrikuntza bezala, kanpanula, salbia eta tradskandia izan ziren.

## ATZOKO AZOKA ▶

Berdura plaza merk. gares.

Landareak		
Geranio hiedrak	1,90	2,50
Surfiniak	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Lekak	0,35	0,40
Txinar krabelina	2,50	-
Zintzilikoak	2,40	6,00

## Bertakoak

Babak	3,50	4,00
Kalabaza	1,50	3,00
Tomatea	3,00	4,50
Porrua	2,00	5,00
Tolosako babarrun	8,00	12,00
Antzarra	11,00	12,00

## Ekologikoak

Intxaurrak	4,00	6,00
Tipula	1,75	2,50
Azenarioak	2,00	2,00
Baraburiak	1,60	6,00
Mermelada	3,00	3,60
Aza	2,50	3,00

hilerriak ▶

eskela hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



**Joseba Olazabal Caballero**

— Goian bego —

Ezustean joan zara  
gurekin agurtu gabe.  
Beti izango zara,  
lagun paregabe.

Gaur 17:00etan izanen da meza Areosoko Amabirjin Zeruratzaren elizan.

MUNKSJÖ PAPER S.A.-ko lankideak

ELDUA, 2005eko maiatzaren 22a

ANOETA ▶ HERRIKO JAIAK

# Jaietarako prestatzeko ekitaldi ugari

Herriko jaien hasieran, jende ugari hartu du parte asteburuko ekitaldietan

## OLAIA ESKITXABEL

Herriko jaiak hasiera gisa, gortputza egokitzen joateko ekitaldi ugari antolatu dituzte asteburuan zehar Anoetan.

Herri borondatearen aldeko jaien egitaraua ostiralean jarri zen abian bertsorik gabeko antzerkiarekin. *Ama begira zazu* antzerkia aurkeztu zuten; ikusleak barrezka aritu ziren saioa amaitu bitarte. Atzo, hiru bikote neurtu ziren sega apustuan; Igor eta Aitzol, Joakin eta Iñigo (jazko irabazleak) eta Txomin eta Egoitz. Jende ugari joan zen Argindegiko zelaira. Ordu erdiko saioaren ondoren, Igorrek eta Aitzolek lortu zuten txapela. «Hilabete eta erdi inguru eman dugu entrenatzen. Igorren baserriko belardi gehienak moztu ditugu», azaldu du Aitzol Esnaolak. «Zaharrei irabazteko sekulako gogoia genuen urte bete *belarria jaten* eman baitute».

Egitarau ofizialaren baitan

ere ekitaldi ugari izan ziren atzo; goizean, VIII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketaren finalak jokatu zituzten. Guztira, 73 gaztetxok hartu dute txapelketan eta atzo, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako finalak jokatu zituzten. Parte-hartzaileen artean pilotak eta giltzatakokoak zozketatu zituzten; ondoren, garaikurrak banatu zituzten.

## Koadrilen txupinazioa

Koadrilen egun handia ospatu zuten atzo. Iazko jolasak irabazi zituen koadrilako lagunek pregoia egin zuten plazan blusa desberdinak soinean zermatzaten koadrilen begiradapean. Jarraian, koadrila bakoitzak suziri bana jaurtiki zuen. Trikipoteoa, bazkaria eta jolasak egin zituzten ondoren. Datoren urteko pregoiariak eza gutzen dira, beraz.

Gaurko beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte.



**Sega apustua.** Herritar zein kanpotar ugari bildu ziren atzo Herri borondatearen aldeko jaien egitarauaren baitan antolatutako sega apustuan. Hiru bikote lehiatu ziren; Igorrek eta Aitzolek irabazi zuten. Belarra jasotzen, pisatzen... ere laguntzaile ugari aritu ziren. O.ESKITXABEL



**Antzerkia.** *Ama begira zazu* antzezlanak eskaini zuten herenegun herriko gazteek; ikusleen barreak saio guztian zehar entzun ziren. J.SAIZAR



**Koadrilen Eguna.** Iazko jolasak irabazitako koadrilen pregoiaren ondoren, Koadrila Egunari hasiera emateko txupinazioa jaurtiki zuten. O.E.

## EGITARAUA ▶ EGITARAU OFIZIALA

### GAUR

Dantzari Txiki Eguna.

**11:30.** Saka ganadutegiko zezenxoak eta ponyak plazan.

**13:00.** Anoetako txistularien kalejira buruhandiek eta erraldoiek.

**17:00.** Villabona, Zizurkil,

Tolosa, Alegia, Irura eta Anoetako dantza taldeen emanaldia herriko plazan. Ondoren, merienda emango zaie dantzariei frontoian. **19:30-20:30 eta 22:30etik aurrera.** Erromeria Koldo Iparragirre eta bere taldearekin plazan.

## EGITARAUA ▶ HERRI BORONDATEAREN ALDEKO JAIK

### GAUR

**10:00.** Herriko baserriar, artisau eta artisten azoka. Goizean zehar: lanabesen erakusketa, musika, pintxoak...

**12:00.** Herri kirolen erakustaldia. Ondoren, bazkaria.

**19:00.** Kantaldia, Aran eta Estiren eskutik.



**Pilota txapelketako finalak.** Egitarau ofizialaren baitan VIII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak jokatu zituzten atzo herriko gaztetxoek; txapelketan, guztira, 73 neska-mutiek hartu dute parte. O.ESKITXABEL

## iragarki laburrak ▶

**Kutxak eta banketeak.** Lekuak libre. Sartzeak laster. Informatu. 943 43 41 27.

**Peoiak, igeltseroak, soldadoreak, mantenimendukoak.** Sartzeak laster. Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain,

Mendaro, Villabona. Informatu. 943 43 41 27.

**Sukaldeko laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak, tabernariak.** Sartzeak laster: ikastebeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu. 943 43 41 27

**Administrari laguntzaileak.** Sartzeak laster. Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu. 943 43 41 27

**Gidariak.** Sartzeak laster: udalebeak, Eusko Jaurlaritza, Foru

Aldundia. Informatu 943 43 41 27 telefonoan.

**Harreragileak, telefonistak.** Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27

**Administrari laguntzaileak.**

Liburutegiak, informatika. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27.

**Udaltzainak.** 25 plaza libre udalebeetan: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.




**AGURRAK**

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



Bihotzean min dut, min etsia / negar ixilla danon mina / Lagunbo bat nun: gaur, / etorri-garaiez, aldegin./  
«Agur (oihuka dio) / gorputza ximur maitel / Agur, lagunboa! / Egun haundi arte!» Zue launek.



Hamabost urte beteak eta / zure lehenbiziko dema, geroztik hamar pasa dituzu / beti eman duzu dena. Ez dugu ahazten lagun artea, / zure indar ta kemena. Orain zergatik iritsi behar zun / Joseba, zure azkena nahiz ta betiko gurekin zauden / gaur soka dago etena.



**ZORIONAK ETA URTE ASKOAN**  
Jurgi Goñi Garmendia (Alegia). Maiatzaren 14ean 9 urte bete zituen eta gaur 1. jaunartzea egingo du. Muxu handi bat asko maitel zaitugunon partetik.



**URTE ASKOAN**  
Eñaut (Alegia).  
Bihar 5 urte.  
Ongi pasa.



**URTE ASKOAN**  
Patxi Larreta (Tolosa). Gaur 95 urte, ondo eramana!! Zorionak! Muxu handi bat denon partetik.

2005eko maiatzaren 19, 20, 21 eta 22a laguntzaile: **hitza**

**H. Garagardo** Jesta

**Jaki tipikoak 18:00tatik aurrera zabalik**  
**20 garagardo mota**  
**+ 5 KALIMOTXO mota aukeran**



**URTE ASKOAN**  
Mikel Sagarna 'Sensa' (Tolosa).  
Zorionak biharko partez familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Naiara Sagarna (Tolosa).  
Zorionak atzoko partez Lluna eta familia osoaren partetik.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Tolosa. Olarreaga J. Martin J. Iraola 10. 943 67 24 38.  
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga 7. 112.

**Bihar**  
Tolosa. Olarreaga A. Korreo kalea 2. 943 67 01 28.  
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

**LS** **La Salle Berrozpe ikastetxea**  
**ANDOAIN**  
La salle etorbidea, 5  
www.lasalleberrozpe.com

**ATEAK ZABALIK**  
Eguna: 2005eko maiatzaren 24.  
Ordua: 16:30  
Lekua: La Salle Berrozpe ikastetxean

**MATRIKULAZIOAK**  
Zatuz gure  
Heziketa Zikloak  
ezagutzera

Informazio gehiago  
**943 590 557**





HITZA

## EZKONTZEN URTAROA IRITSI DA

Apirilean, eta gehienbat maiatzean hasten dira ugaritzen ezkontzak; lan ugari eskatzen du festaren prestaketak: soinekoan, eraztunetan edota jatetxean pentsatzeko garaia iritsi da

# ZURIZ JANTZITAKO UDABERRIA

Udaberriarekin batera datoz zuriz jantzitako emazteak ere; ezkontzen urtaroen sartu gara eta ospakizunaren prestaketa lanak abian jarri dituzte bikoteak



Emaztegiaren soinekoa da guztek ikusi nahi duten ezkontzako sekretua. »172

Gaur egun, gero eta lehenago hasten dira ezkongaiak beraien ezkontza prestatzen, besteak beste, garai batean baino prestakitzun gehiago burutu behar dituztelako. Jantzetan eta ezkontza lekua aukeratu, eraztunak erosi, gonbidatuen zerrenda prestatu, jantziak probatu, eskon bidaiak begiratu... Erlojupeko lana izan daiteke askorentzat, eta zeregin pisutsua gehienentzat.

Udaberriko eguraldi onarekin batera, ugartu egiten dira ezkontzak. Apirila eta maiatza dira ezkontzen denborarik onenak abiapuntua, eta, udazken amaieraraino dotore jantzitako hamarko lagun ikusiko ditugu inguruko herrietan.

Arestian aipatu moduan, gauza ugari izan behar ditu kontuan ezkontza bat prestatzeari ekingo dion bikoteak.

Eta horra hor lehen galdera: «Izua ala ziklo?»

Elizaz ezkontzak dakar, agian, lan gehien; ospakizun jasoa izan ohi da kasu askotan. Horren baitan, lehenik eta behin, jantzetan eta eliza aukeratu behar dira, horietan izan behar lekua topatzeko konzertu gehien. Behin jantzia aukeratu, gonbidatuek zer menu izango duten aukeratu behar dute ezkongaiak. Rafael Montecelo Alegrako Txintxarri jantzetako arduraduna da eta izan dituzte euren ezkontza ospakizun bat baino gehiago. Meneren inguruan, «bikote bakoitza bere gustuko jakia aukeratu dituzte ezkontza egunerako. Hala ere, itxasak esaterako, la menu guztietan ageri dira. Langostinoak, entsaladaren bat, urdiazpiloa edota patata izan daitezke lehen platerak; ondoren, arraina eta haragia, eta azkenik, tartia. Dena dela, ezkongai bakoitza aukeratu du bere gustukoak.

Berlalde, Txintxarri arduradunaren ustetan, jantzetako zeremonia ez da asko aldatu azken urte askotan, garai bateko ohitura berberak mantentzen dira gaur egun ere. «Tartia bikoteak mozteta, lehen baldia

dantzatzea, opariak gonbidatuz gonbidatu banatzea, lore erramua ematea... mantendu egiten.

Ezusteak ere izan daitezke ezkontza batean, baina Rafael Monteceloren ustetan, onomalean nahiko ongi ateratzen dira ezkontza guztiak, ezusteko handirik gabe, aurrez oso ongi prestatuta egoten baitira. Jantzetako arduraduna izateaz gain, bera ere ezkonberria da eta argakiak, atera ostean erramua gailu zuzela aitortu digu.

Jantzetan eta ezkontza lekua aukeratu ondoren, gonbidatuek prestatzeko tenorea iristen da. Ezkontzara joango diren zerrenda prestatu behar da lehenik eta behin familiarikoa eta lagunak jakinarazi gabein jarri, gonbidapenak inprimatu eta banatu, erantunak jasotzea denbora luzez ibilkiko dira ezkongaiak lan horretan.

### Ezkontzako harribitxia

Jantziak ere, protagonismo handiago hartzen dute eguneroko emazteentzako batik bat gonbidatu guztiak

egongo dira ezkontza egunean neskaen jantzia ikusteko irrikatan. Garai batean beltzez jantzen ziren emakumeak, ondoren, zuria nagusi zen, eta gaur egun, kolore askoren artean hautatu behar du emazteak bere gustukoak: xanpain kolorekoa, hezur kolorekoa, zuria hautsia... zuriaren familiarikoa gehienak. Dena den, ausartentzat, ezkongai jantzi arrosak, berdeak edota urdinak, egon bideak diren gizonenak, aliz, traje arruntarekin joan ohi dira gehienetan.

Tolosako Plis-plas tindatze-gaiako arduradunek badute jantzi hauei inguruan jakintzarik, horietako asko garbitzen baitituzte, urte garai honetan gehienbat, «neska bakoitza bere soinekoa erosten du, izan ditugu jantziak salgai, baina ez dituzte erabilirik erosten. Hori bai, ezkontza ostean garbitzera ekartzen dituzte etxean gordetako ondoren».

Guztietan kasua besteakoa da, «gaur egun ez dira txakak edota frak-ak erabiltzen, beraz, traje arruntak behin ezkontza ere asko erabiltzen dute».



Serbiargiaren kasuan, gero erabili ahal izango duten trajea jantzi dute ezkontzan. »172

**TINDATEGIA - KONPONKETAK**  
ESKONBERRIEN JANTZIEN EMATZTEGIAREN OINETAKOAK  
**PLIS PLAS**  
San Frantzisko, 19 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 38 77

**KARMELE**  
• Illeapaindegia • Ilegaiak • Osagaiak  
San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 65 26 02

**Ospakizunetarako berezia:**  
**Ezkongaiak, amabitxiak, jaunartzeak.**  
**ESKAIINTZA**  
**Gorputz eta aurpegi tratamenduen sortak:**  
Aurpegiarako tratamendua / Gorputzerako peeling-a  
Betileen permanentea eta tintea / Manikura  
Oinen estetika: Frantses permanentea / Depilazioa, Makillajea.  
**SHUYANA EDERGINTZA**  
300 eurogatik; **OPARIA, SOLARIUM-ERAKO BONOIA (11 SAIO)**  
150 eurogatik; **OPARIA, MAKILLAJEA ETA FROGA**

**Ezkongaiak**  
Alberto Diaz eta Susana Ortiz irailaren 28an ezkontuko dira. Bitxiegia topatu ditugu biak erantunak aukeratzeko.  
Bikote orain urtebete hasi zen ezkontza prestatzen; eta oraindik hilabete batzuk falta badira ere, ez dute ulazio oporretarako egin gabeiko lanik utzi nahi. Lehenengo lana jantzetan eta eliza erreserbatzen

**SCARPIN**  
www.scarpin.com  
Gorosabel, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 67 01 10

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean • TOLOSA

**Berezi**  
NEURRI BEREZIAK  
ZURE EZKONTZARAKO  
SONEKOAK PRESTATZEN DITUGU  
Herriko kalea, 3-TOLOSA  
Tel.: 943 67 49 65

**cid**  
zure ezkontzarako  
hurbildu...eta sartu!!  
Tel.: 943 65 27 12 • Femenetxeribidea, 5 • TOLOSA

**Ezkontzarako orrazkera bereziak**  
Herriko, 11 - Tolosa • BARRA  
Tel./fax: 943 67 22 82

Erremontzi kobak 2/3 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 18 30  
**LENTZERIA**  
**Trikiniak, bainujantziak, hondartzarako kamisolak**

**honekin** 943 67 22 44  
ziber illeapaindegia  
Santxo Martiaren plaza, 1  
20400 TOLOSA  
ASTELEHENA: 15:00-20:00  
ASTERTEA-OSTEGUNA: 9:00-13:00 / 15:00-20:00  
OSTEGIA: 8:00-20:00  
(9:00-13:00 irekia)  
LARUNBATA: 8:00-13:00  
**EZ MOZTU!** zatoz gure ziber illeapaindegira

# AZKEN OSAGAIAK

Ezkontza eraztunak dira elkarketa honen sinbologia; ezkon bidaia da, bestalde, ospakizuneko azken pausoa



Orrazkera eta makillaje informalak daude orain modan, itxura naturala izango du emaztegaiak. HITZA

Eraztunak dira, beharbada, ezkontzaren sinboloetako bat, eta alor horretan ere bada non aukeratu.

Marisol eta Mariluz Cid ahizpek, ezkongai asko izan dituzte euren dendan eraztunak erosten. «Orokorrean, eraztun berdina jantziko dute bikotekideek, eta urre horia eta zuria dira metal aukeratuenak horretarako. Ohikoa ez den arren, brillante gutxi batzuk dituzten eraztunak ere erosten dituzte batzuk emaztearentzat, eta li-soak gizonarentzat. Hori bai, eraztunak barrualdean, bikotekidearen izena eta ezkontza eguna izaten du grabatuta».

Itxuraren inguruan ere, mota askotakoak daude, «badira itxura klasikoa gustuko dutenak eta beste batzuk ordea, berritu nahi dute eta itxura modernoagoko eraztunak erosten dituzte». Eraztunetz gain, beste-lako osagai bila ere gerturatu dira emaztegaiak denda honetara: belarritakoak edota soinekoarekin ondo doakien lepokoa erostera, esaterako.

Osagai hauen inguruan ere badira gehienetan betetzen diren berdintasunak. Cid ahizpen esanetan, «lehen, emaztegai guztiak perlat eramatzen zituzten ezkontza egunean; gaur egun, guk esaten diegu hori oso zaharkitua dagoela eta beste zerbait modernoagoa aukeratzeko, gero erabili ahal izango duten zerbait erosteko.

Non aukeratu gehiago dago gaur egun».

Baina ez dira ezkongaiak Cid bitxitegira joaten diren bakarrak. Gainerako gonbidatuek ere erosten dituzte pitxiak; «horietako asko, ezkonlagunak batik bat, jantziarekin edo haren zati batekin etortzen dira, ondo doakion zerbait aukeratzeko». Eta badira, ezkonbe-

## PILI MERKETEGI ▶ KIRIBIL ILEAPAINDEGIA

### «Egun, orrazkerak, nahiko informalak izaten dira»

Azken ukituak emateko garaia iritsi da. Ileapaindegiak lan eta lan dabilta ezkongaiekin eta gonbidatuekin. Ibarrako Kiribil ileapaindegia da ezkontzako protagonistak polit jartzeko arduradunetako bat.

**Nolako orrazkerak daude modan?**

Nahiko informalak izaten dira. Soinekoa nolakoa den begiratu behar da, horren baitan aukeratu baitugu orrazkeraren itxura: nolako eskotea duen, kolorea edo tankerari begiratu. Hala ere gehienek informala eskatzen dute, egunero ere horrela joaten direlako.

**Noiz hasten zarete ezkongaiak prestatzen?** Emaztegaiak hiru hilabete lehenago etortzen dira orrazkera frogak egitera, soinekoaren

frogak egiten hasten direnean. Ondoren, pare bat froga egiten dira, eta ezkontza egunean 7:30ak inguruan etorriko da guregana.

**Gizonezkoak ere etortzen al dira? Eta ezkontzako gainerako gonbidatuak?**

Bai. Astebete lehenago ilea moztera etortzen dira senargaiak eta egunean bertan orrazten ditugu gizonak ere. Ezkongaietz gain, gonbidatuak ere etortzen dira, gehienbat ezkontzara kanpotik etortzen direnak.

**Eta bestelako osagaiak?**

Makillajea suabea izaten da orokorrean. Gainera, emaztegaiak beltzaranak etortzen dira jada. Manikurari dagokionez, frantsesa egiten da gehien. ◀



Soineko soilak eta itsura informala aukeratzen dituzte neskek. HITZA

rrirentzako opariak ere, horrelako dendetan erosten dituztenak: argazkientzako markoak, kristalezko pitxarrak...

## Lasaigarri bidaia

Ospakizuna prestatzen horrenbeste lan egin ostean, ezkon bidaia preziatua dator. Ezkontzako beste alor askotan bezala, aukerak ere biderkatu egin dira azken urteetan.

Tolosako Eroski bidaia bidaia agentziako arduraduna da Itziar Gil eta haren esanetan, «Kuba, Costa Rica, Mexiko edo Argentina dira, egun, norako arrakastatsuenak»; bikote gehienek herrialde hauetan barna zirkuituak dituzte gustuko: lehen egunetan, handik hona ibili ostean, azken egunak hondartzen bueltan egoteko bidaia izan ohi dira.

Amerikako herrialde haueztaz gain, badira beste kontinenteetara joaten direnak ere:

Egiptora, Tanzaniara edo Kenyara, besteak beste.

Ezkontza gehienak udaberriko hilabete hauen bueltan ospatzen badira ere, zenbait herrialde ez dira urte garai honetan bisitatzeko egokienak, Argentina kasuko; hori kontutan hartuta, «orain ezkondu eta ezkonbidaia urrian egiten duten bikoteak ere badaude» dio Gilek.

Ezkonberriek, oparitxoak izan ohi dituzte beraien bidaiaetan: «Fruta zestak, xanpaina eta hotel batzuetan azken eguna hotelean pasatzeko aukera ematen dute modu honetako eskaintza gehienetan, baina orokorrean beste edozein bidaiaeren antzekoak izango dira».

Horrelako bidaia bat egin ahal izateko bikotekide bakoitzak 2.000 eta 3.000 euro bitartean ordaindu beharko ditu, batzaz beste, 15 egunetako oporren truke.

## EZKONTZAK ▶ URTEZ URTE

Tolosaldeko zenbait herritako datuak jaso ditugu ondoren, iaz izandako ezkontzenak eta orain 10 urte izandakoena.

### ALEGIA

**Zibilez.** 1994ean 3 bikote. 2004ean 3 bikote.  
**Elizaz.** 1994ean 2 bikote\*. 2004ean bikote 1.

### ANOETA

**Zibilez.** Ez dago daturik.  
**Elizaz.** 1994ean inor ez. 2004ean inor ez.

### IBARRA

**Zibilez.** 1994ean 37 bikote. 2004ean 41 bikote.  
**Elizaz.** 1994ean 23 bikote. 2004ean 28 bikote.

### LEITZA

**Zibilez.** 1994ean 13 bikote. 2004ean 17 bikote.

**Elizaz.** 1994ean 9 bikote ezkodu ziren Leitza (beste 9 kanpoan).

2004ean 10 bikote Leitza (12 kanpoan).

### TOLOSA

**Zibilez.** 1994ean ez zen ezkontzarik izan (erregistroan arazoak izan ziren).

2004ean 27 bikote.

**Elizaz. (S. Frantzisko elizan)** 1994ean inor ez.

2004ean inor ez.

### VILLABONA

**Zibilez.** 1994ean 35 bikote. 2004ean 21 bikote.

**Elizaz.** 1994ean 2 bikote. 2004ean bikote 1.

\* Datuetan, herrietan izandako ezkontza kopuruak ageri dira, ezkontideak bertakoak izan edo ez kontuan hartu gabe, eta kanpoan ezkonduko herritarrak kontatu gabe.

**IRIARTE**  
J A T E T X E A  
BERROBI

JAUNARTZEAK  
FAMILIARTEKO EZKONTZAK  
(70 pertsonentzat)  
MENU BEREZIAK  
FAMILIARTEKO BAZKARIAK

Etorri aurrekontua eskatzera konpromezurik gabe

Erreserbak • 943 683 078